

## 4. Ostalaritza

XX. mende hasieratik taberna, kafe... dezente aurki daitezke herrian barrena. Tabernak erdialdean eta auzoetan egoten ziren baina kafea plazan bakarrik; maila altuko tokian.

Tabernak eta jatetxeak gizonen elkarrekin denbora pasatzeko eremua izan dira. Egunero taberna erronda egiten zuten kaleko gizonen eta asteburuetan baserritarrek. Gainera, egun erdian, dendari, jantzigile... gizonen tarte hartzen zuten trago bat hartzeko beren emazte edo alaba dendan utzita. Eta tabernan karta-jokoan edo tertulian aritzen ziren. Egun be-zietan, kantuan egiten zuten.

Maila ekonomiko altua edota lan inportantea zutenak ez ziren edonon batzen. Oñatin ho-rretarako bi leku zeuden: Edmundo Geretaren lokalean edote Garaikoetxea kafean. Bertan herriko pertsona ahaltuenek pasatzen zuten denbora.

Emakumeen kasuan, berandu arte ez dira gizonen moduan tabernetan ibili (lanerako ez bada izan). Hain zuzen ere, 1970ean hasi ziren lagunekin gosaltzen eta arratsaldetan ka-fea hartzen, adibidez. Garai honetarako, gainera, gaur egun ezagutzen ditugun taberna eta jatetxe gehienak existitzen ziren.

